

## Eranskinak

### I. Eranskina: Hasierako galdetegia

Terapiak													
Medizina	Eraginkortasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Efektu sekund.	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Zergatik?												
Sendabelarrak	Eraginkortasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Efektu sekund.	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Zergatik?												
Homeopatia	Eraginkortasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Efektu Sekund.	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Zergatik?												
Elikagaiak	Eraginkortasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Efektu Sekund.	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
	Zergatik?												

## II. Eranskina: Sekuentzia didaktikoa

### Helburu orokorrak:

- Gure gizartean gaixotasunen aurrean erabiltzen diren terapiak identifikatzea eta bakoitzaren funtsa ulertzea.
- Terapiak jarrera kritikoz aztertzeke gai izatea, datuetan oinarritutako argumentuak emanaz.
- Sendagaien eraginkortasunaren eta efektu sekundarioen arteko harremana ulertu eta konpartitzeko gai izatea. Hau da, eraginkorra izateko probabilitatearen eta efektu sekundarioen artean harreman zuzena dagoela.

### Eduki orokorrak:

- Garapen osasuntsuari kalte egiten dioten eta, halaber, osasunarekiko jokabide arduratsua oztopatzen duten gizarte-ohiturekiko jarrera kritikoa.
- Higiene-, atsedene- eta elikadura-ohitura osasungarriak identifikatzea eta bereganatzea. Dieta orekatuak. Osasunerako arriskuei aurre egitea eta antzematea.
- Gaixotasunen aurrean erabiltzen diren terapia desberdinak ezagutzea. Homeopatia, farmakoak, sendabelarrak eta dieta orekatua esaterako. Terapia bakoitzaren funtsa ulertzea, eta kritikoki aztertzea.

### Gaitasun orokorrak:

- a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna  
 Sekuentzia honetan, zientziarako gaitasuneko parte den argumentaziorako gaitasuna landu nahi da. Horretarako, bide bezala eztabaidak erabili dira, arrazoiketa lantzeko, eta horiek zerbaitetan oinarria izan behar dutela jakinaraziz.  
 Horrez gain, abilezia hori lantzeko, sendagaien gaia erabiliko denez, osasun kulturarako gaitasuna jorratzen ari gara. Sendagaien inguruan zenbat eta jakintza gehiago eduki, gure erabakiak etorkizun batean hobeak izango dira, horrela gure osasuna bermatzeko aukera gehiago izanaz.

b) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Argumentaziorako gaitasuna jorrazteko, erabiliko den metodologia gehiena eztabaidak edota idatzizko arrazoiketa izango da. Horretarako, kideekin komunikatzea ezinbestekoa da, hizkuntzan duzun abilezia landuz, eta elkarrekintza edota eztabaida batean parte hartzeko gaitasuna handituz.

## 1. SAIOA

### Helburuak:

- Ikasleek euren aurre-ezagutzak plazaratzea, gelakideen artean bakoitzak bere ideiak komentatuz.
- Gaixotasunak sendatzeko terapia desberdinak ezagutzea.
- Terapiak sendatzeaz gain efektu sekundario batzuk sor ditzaketela ohartaraztea.

### Gaitasunak:

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

### Edukiak:

- Txinatarrek gaixotasunak sendatzeko erabiltzen dituzten terapiak.
- Gure gizartean sendagai bezala erabiltzen diren terapiak.
- Eraginkortasun eta efektu sekundarioen arteko harremana.

### Metodologia:

#### Jarduerak:

- 1- Gai honetan sartzen hasteko, txanela liburuko osasunaren gaia irakurtzen hasiko gara. Bertan, Txinatarrek gaixotasunen aurrean zein bide erabiltzen dituzten komentatzen dira. Hori abiapuntutzat

edukiz, gure herrialdean erabiltzen diren terapietarako zubi moduan erabiliko da.

Jarduera honetan ahozko irakurketa egingo da, ahoz eta talde handian, txandakako irakurketa eginez.

Denboralizazioa: Bost minutu erabiliko dira jarduera honetarako, testu laburtxo bat soilik irakurriko baita.

Materialak: Txanela liburua.

- 2- Txinatarren medikuntza ohiturak ezagutu ondoren, ikasleei galdera bat proposatuko zaie. Zein terapia mota ezagutzen duzue gaixotasunak sendatzeko? (Farmakoak, sendabelarrak, homeopatia ... )

Galdera horretatik abiatuz, ikasleek gai horren inguruan duten brain storming bat egingo dute, talde handian beraien ideiak plazaratuz, horrela denen artean terapia desberdin gehiago aipatzeko bide bezala.

Bukatzean, aipatutako terapia horiek arbelean idatziko dira aurrerago burutuko den ariketa batean erabiltzeko. Gutxienez, farmakoak, sendabelarrak, homeopatia eta dieta orekatua jorratuko dira.

Denbora: Bost hamar minutu inguru erabiliko ditugu jarduera hau burutzeko, eztabaida sortuz gero, denbora pixka bat luzatu ahal izango da.

Materiala: Jarduera honetarako ez da material espezifikorik behar.

- 3- Terapiak komentatu ostean, efektu sekundarioen inguruan zer dakiten galdetuko zaie ikasleei. Ahoz denen artean komentatuko dira ikasleen usteak eduki honen inguruan. Ideiarik sortu edo euren esperientzia pertsonalik komentatu ezean, azalpen laburtxo bat eman, zeinetan laburki, azaldu nola, farmakoek gaixotasuna sendatzeko printzipio aktiboa daukaten baina horrez gain, eszipientek ere badituzte. Azken hauek, farmakoari gustua, forma

eta beste hainbat ezaugarri emanaz. Eta aipatzekoa da, azken hauek direla efektu sekundarioen eragile nagusienak. (Doménech, Márquez, Roca eta Marbà, , 2015)

Denbora: 10 minutu

Materiala: Ez da aparteko materialik beharko.

- 4- Ikasleen aurre ideiak gehiago ezagutzeko asmoz, eta sekuentzia bukatzean euren garapena errazago aztertzeke, inkesta bat egingo zaie. Inkesta horretan, aipaturiko terapiak (gutxi aipatu badira nik proposatutakoak) idatziko dituzte terapiak deritzoan hutsuneetan. Ostean, terapia bakoitzaren eraginkortasuna eta efektu sekundarioak Otik 10era bitartean kokatu beharko dituzte, eta alboan euren adierazpenaren zergati txiki bat idatzi beharko dute, horrela argumentatzeko duten gaitasuna aztertzen hasi ahal izateko.

Denbora: Ariketa hau burutzeko, hamabost eta hoge minutu bitarteko denbora erabiliko da. Azken batean, gaiari buruz gutxi dakitela suposatzen denez, denbora hutsi beharko zaie pentsatzeko eta era egoki batean plazaratzeko.

Materiala: Inkesta izango da ariketa hau aurrera eramateko behar den materiala. Inkesta, **eranskina I** izango da.

## 2. SAIOA

### Helburuak:

- Informazio hautatu eta aztertzeke gai izatea.
- Terapia bakoitza gutxi gorabehera zertan datzan ulertzea.
- Terapiak euren artean bereizteke gai izatea.

### Gaitasunak:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

**Edukiak:**

- Gure gizartean sendagai bezala erabiltzen diren terapiak. Homeopatia, farmakoak, sendabelarrak eta dieta orekatua.

**Metodologia:**

Jarduerak:

1- Aurreko saioan aipatutako terapiari erreferentzia eginez, ikasle bakoitzari testu bat emango zaio, galdera batzuekin testua hobeto ulertu dezaten. Hasteko testua irakurri eta terapia bakoitzaren inguruko galderak erantzun beharko dituzte. Horrela, ageri diren datuak errazago barneratzeko. Hori egin ostean, denbora izanez gero, talde txikian euren erantzunak komentatzen utziko zaizkie.

Denbora: 30 minutu

Materiala: Terapiari buruzko testuak(III.Eranskina) eta terapia bakoitzaren inguruko galdetegia (IV. Eranskina).

2- Talde txikian eztabaida egin ondoren, talde handian testuetan ageri dena komentatuko. Horrela, terapia bakoitzari buruz jakin beharrekoa errazago barneratzeko aukera izango dute. Gainera, ideiak eurek plazaratzea aberasgarria litzateke, norberak ulertutakoa zuzentzeko edo ideian batzuk gehitzeko.

Denbora: 25 minutu

Materiala: Aurreko jardueran erabilitako testu eta galdetegia

**3. SAIOA**

**Helburuak:**

- Informazio hautatu eta aztertzeko gai izatea.
- Terapia bakoitza gutxi gorabehera zertan datzan ulertzea.
- Terapiak euren artean bereizteko gai izatea.
- Terapiak modu kritikoan aztertzeko eta aukeratzeko gai izatea.

### **Gaitasunak:**

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

### **Edukiak:**

- Gure gizartean sendagai bezala erabiltzen diren terapiak. Homeopatia, farmakoak, sendabelarrak eta dieta orekatua.
- Terapien eraginkortasuna eta efektu sekundarioen arteko erlazioa.

### **Metodologia:**

Jarduerak:

- 1- Saio honekin asteko, aurreko saioan landutakoari buruzko errepaso txiki bat egingo da. Horretarako, ausaz aukeratutako ikasleei terapia bakoitzari buruz ikasitakoa laburki komentatzeko eskatu zaio. Dena azaltzeko gai izan ezean, ikaskideen laguntza eskatuko da, horrela, gai bakoitzari buruzko ideiak argiago izateko aukerak handituz.

Denbora: Jarduera honetarako hamar eta hamabost minutu inguruko denbora erabiliko da.

Materiala: Ez da aparteko materialik behar, ahozko ariketa izango baita.

- 2- Terapia bakoitzari buruz landutakoari buruzko errepasoa egin ondoren, lehen saioan egindako inkesta berriz pasatuko zaie ikasleei, jorratutakoaren arabera bete dezaten. Horrela, hasieran egindakoa

eta gaia landu osteko emaitzak eta argumentuak alderatu ahal izango ditugu.

Denbora: Inkesta burutzeko, aurrekoan bezala hamabost eta hogeita minutu bitartean izango dituzte. Oraingo honetan, suposatzen da gaiari buruz ideia gehiago izanik, denbora hobeto aprobetxatu eta emaitza osoagoak lortuko direla.

Materiala: ariketa honetarako inkesta beharko dugu. Inkesta hori, **eranskina I** izango litzateke.

- 3- Azkenik, saio honi bukaera emateko, talde txikian eserita dauden moduan daudelarik, ikasleei eztabaida bat egiteko eskatuko zaie. Terapia bakoitzari buruz dituzten usteak alderatuz, eta orokorrean eurentzat zein den erabilgarriena eta zergatik adieraziz. Eztabaida horiek aztertu ahal izateko, grabagailuak jarriko dira talde bakoitzean, ikasleen hausnarketak aztertu ahal izateko saioa bukatu ostean. Ariketa honek, hurrengo saioan egingo den eztabaida handirako ideia eta arrazoi zehatzagoak izatea du helburu.

Denbora: 15-20 minutu

Materiala: Ez da materialik beharko grabagailuaz aparte.

#### **4. SAIOA**

##### **Helburuak:**

- Terapien eraginkortasunaren eta efektu sekundarioen arteko harremanaz kontzientziatzea. Hau da, eragin sekundariorik ez duenak ez duela eragin positiborik ere ulertaraztea.
- Landuriko edukietan oinarrituz arrazoitzeko gai izatea, eztabaida esanguratsuak sortuz.

##### **Gaitasunak:**



- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

### **Edukiak:**

- Gure gizartean sendagai bezala erabiltzen diren terapiak. Homeopatia, farmakoak, sendabelarrak eta dieta orekatua.
- Terapien eraginkortasuna eta efektu sekundarioen arteko erlazioa.

### **Metodologia:**

Jarduera:

1- Aurreko saioan egindako inkesta aztertu ostean, gela modura jarritako emaitza orokorrak arbelean kokatuko dira. Esate baterako, gela modura terapia bakoitzari jarri dioten eraginkortasun maila jarritz. Hori abiapuntu modura jarritz, gela eztabaida bat sortu nahi da, beraiek jarritako emaitzak denen artean arrazoituz, ea zergatik uste duten emaitza hori jarri dutela adieraziz. Eta horrekin batera, eraginkortasuna eta efektu sekundarioen arteko gogoeta sakonago bat eginaz, euren arteko harremana terapia guztietan aztertu ostean, bi kontzeptu horien erlazioa zer ondorio duen argumentatuz.

Arbelean datuak kokatuko dira, bai eraginkortasun eta efektu sekundarioenak. Hori izanik, terapia bakoitzari buruzko eztabaida egingo da, eta azkenik denen arteko gogoeta bat. Hasteko, farmakoei edo botikak eraginkorrak ikusten dituztenei eskua altxatzeko eskatuko zaie, eta horiei euren ustearen arrazoiak eskatuko zaizkie. Eraginkorrak ez direla uste dutenenei ere, gauza bera eskatuko zaie. Ondoren, efektu sekundariorik duten uste duten galdetu eta prozesu bera egingo da.

Terapia guztiak eztabaidatuko dira, modu berean.

Dieta orekatuaren kasuan, aparteko galdera bat eskatuko zaie. Dieta orekatuak gaixotasun bat sendatzeko balio digu, beste ezer kontsumitu gabe?

Azkenik, eztabaidarekin bukatzeko, ea eraginkorrena zein den uste duten galdetuko zaie euren ustetan zergatiak emanaz. Terapia bakoitzaren alde daudenei eurek uste duten terapiaren aldeko arrazoiak eta besteen kontrakoak eman beharko dituzte. Eta horrekin batera, eraginkortasunaren eta efektu sekundarioen arteko harremanean gogoeta bat egin nahi da. Azken batean, efektu sekundariorik ez egoteko probabilitatea txikitzean, eraginkorra izateko probabilitatea gutxitzen dela ikusi baita.

Denbora: Eztabaida honetarako berrogeita bost eta ordu bete bitarteko denbora erabiliko da, eztabaida ahalik eta esanguratsuena izateko denbora emanaz.

Materiala: Beharrezkoa izango den materiala, aurreko saioko inkestetako emaitzak izango dira.

### **III. Eranskina: Sendabideei buruzko testuak**

#### **IKASLEEI EMANDAKO TESTUAK**

##### **FARMAKOAK**

Farmakoaak laborategietan sortutako produktuak dira. Gaur egun, gaixotasun bakoitzarentzat farmako berezi bat daukagu. Produktu hauen helburua, gaixotasuna sendatzea baino ez da. Ikerlariak, gaixotasun bakoitzak zerk sendatzen duten aztertzen dute eta horren ostean, hori beste produktu batzuek nahasten da gure gorputzak kontsumitu ahal izateko. Horiei, printzipio aktiboa eta eszipientea deritze, sendatzekoari printzipio aktibo esanaz, eta gehitzen zaizkion elementuei eszipiente.

Produktu hauek merkaturatu ahal izateko, hainbat froga egin behar izaten dira pertsonetan eraginkorra dela ziurtatzeko eta aldi berean kaltegarria ez dela frogatzeko.

Farmako bakoitzak, pertsona bakoitzean eragin desberdina izan dezake. Printzipio aktiboak gaixotasunari aurre egiten dio, baina eszipienteeek gure gorputzean efektu sekundarioak sor ditzake. Pilula batzuk hartzean esaterako, paziente batek tripako mina jasan dezake. Hortaz, farmakoek gaixotasunak sendatu arren beste arazo batzuk ere sor ditzake.

##### **ELIKAGAIAK**

Edozein animaliak bizirik iraun ahal izateko elikagaiak kontsumitu behar ditu. Hortaz, jatea pertsona batentzat funtsezkoa da, bestela ez litzateke bizirik egongo luzaroan. Bizitzeko beharrezkoak badira, gure gorputzean eraginen bat izango dute, bai onerako eta bai txarrerako. Janez gero, bizirik egoteko aukera dugunez, jan gabe baino osasuntsuago egongo gara.

Munduan zehar elikatzeko ohitura desberdinak daude, batzuk produktu batzuk kontsumitzen dituzte eta besteek beste batzuk. Espainian, Italian, Frantzia eta Grezian esaterako mediterranean dieta burutzen da. Dieta honetan lekale eta fruta ugari kontsumitzen dira. Hainbat ikerketak, ondorioztatu dute,

mediterranean dieta jarraitzen dutenek bizi esperantza handiagoa dutela, zeren eta, bihotzeko gaixotasunak jasateko probabilitate gutxiago baitute munduko beste herrialde askorekin alderatuz.

Gaixotasunak jasateko probabilitatea jaisteak gure gorputza osasuntsuago eta arazoan aurrean gogorrago konportatuko dela esan daiteke.

## **HOMEOPATIA**

Homeopatia gaixotasunak sendatzeko beste bide bat. Gaur egun eztabaidan dagoen praktika da, zeren eta ez dago frogaturik benetan onurarik egiten duen. Produktu hauek modu berezi batean sortzen dira. Gaixotasuna sendatzeko produktua urarekin nahasten da, diluzioak eginaz, hau da, behin eta berriz urarekin nahastuz eta hasierako produktu horren portzentajea izugarri gutxituz.

Adituen ustetan, urak beste produktuaren propietateak bereganatzen ditu eta horrenbestez, azken produktuan (kontsumituko denean) ia dena ura izan arren gaixotasuna sendatzeko erabilgarria izango da. Froga gehienetan, ez dira datu zehatzak lortu eta askok diotenez ia ezinezkoa da eraginkortasuna frogatzea, zeren eta, gaixotasuna tratatu beharrean pertsona tratatzen da. Orduan, ezinezkoak dira bi pertsonekin eraginkortasuna frogatzea.

## **SENDABELARRAK**

Hitzak berak dioen moduan, sendatzeko erabiltzen ditugun belarrak dira. Adibide bat jartzekotan, manzanila edo tila. Sarritan farmakoak ere erabiltzen dira, landare batzuek dituzten propietate batzuk direla eta, gaixotasun batzuen aurrean ondo egiten baitute. Txinan esaterako, gaixotasunak sendatzeko sendabelarrak erabiltzea antzinako ohitura da, eta gaur egun ere erabiltzen dira.

Sendabelarrek euren sendatzeko propietateak izan arren, beste hainbat propietate izaten dituzte. Txinan urtero hainbat hildako egoten dira, sendabelarren ondorioz. Beste propietate horietakoren bat, pozoitsua izan daiteke eta gure osasunean kalte handiak sortu.

Bestalde, sendatzeko orduan sendabelarrek ez dute farmakoen moduan sendatzeko behar dugun propietatearen kantitate zehatz bat, hortaz, ezin dezakegu kontrolatu gure gorputzak zenbat printzipio aktibo barneratuko duen, horrekin bere arriskuak bereganatuz.

## IV. Eranskina: Testuei buruzko galdetegiak

### Farmakoak

- Nola deritzo gaixotasunak sendatzeko farmakoek izaten duten elementuari?
- Farmakoek gaixotasuna sendatzeko printzipio aktiboaz (sendatzen digun produktuaz) gain, ba al dute beste ezer euren konposizioan?
- Gaixotasun bakoitzerako dagoen farmakoa kontsumituz gero, eraginkorrak al dira produktu hauek?
- Sortu al dezakete farmakoek efektu sekundariorik (alergiak esaterako) kontsumitu duten pertsonetan?

### Homeopatia

- Zein jatorri duten produktuak erabiltzen dira produktu homeopatikoak egiteko?
- Zer egiten zaie hasierako produktu horiei, produktu homeopatikoa lortzeko?
- Jatorri naturaletik hartutako produktu horrek ba al du antzik bukaeran kontsumitzen den produktu homeopatikoarekin?
- Produktu homeopatikoek ba al dute gure gorputzean eraginik?

### Sendabelarrak

- Zertarako erabiltzen dira belar hauek?
- Non dago ohitura handia sendabelarrak kontsumitzeko?
- Sendabelar guztiak onak al dira pertsonentzat?
- Zein arrisku dute sendabelarrek?

## **Dieta orekatua**

- Zure ustez, jaten ditugun elikagaiek eraginik dute gure gorputzean? Nola? Laguntzen al du dieta orekatuak gaixotasun baten aurrean? Edo gaixorik jartzeko aukera gutxitzen dizkio soilik gorputzari?
- Sortzen al du dieta orekatu baten efektu negatiborik gure gorputzean?
- Zeri deritzo dieta orekatu bat? Denetarik modu osasuntsu batean jateari edo soilik produktu zehatz batzuk kontsumitzeari?

## V. Eranskina: Eztabaidaren transkripzioa

---

Ikaslearen izena      Elkarrizketa

---

**Irakaslea:** Egin dozuen galdetegixen, danok jarri dozue medikamentuek ia beti osatzen dabela baia aldiz, efektu sekundarioan aldetik batzuk ez dekiela eta beste batzuk baietz? Nork azaltzeozte zergatik beti osatzen daben?

---

**Kattalin:** Ba...medikamentuak horretarako eginda dauzelako. Dekiez produktu batzuk gaixotasunen aurka eitzen dabenak.

---

**Roman:** Ganera guk hartu aurretik pillo bat froga eintzen dabez, benetan gaixotasune osatzen badaben jakitzeko. Orduen ba badie eraginkorrak.

---

**Maite:** Maisu eske froga horrek einbarik ezin dabez saldu, ze ez badaben osatzen zetako hartuko doguz ezta?

---

**Irakaslea:** Orduen danok zauzie ados horretan?

---

**Talde osoak:** BAIII

---

**Irakalea:** Eta efektu sekundarioen aldetik, iritzi desberdinek eduki dozuez. Esate baterako jon, zuk zer uste dozu efektu sekundarioen aldetik?

---



**Jon:** Ba medizina ez dekiela efektu sekundariorik, ze medikuek esateozku hartzeko eta beti izeten da onerako.

---

**Irakaslea:** Beste nonok beste zeuzer uste deu?

---

**Aimar:** Ba ni Jon-egaz ados nau ze froga asko eitzen dabez guretzat kaltegarriek ez izeteko, orduen osatu bai, baia txarrik gure gorputzeri ez dotzon einbiko.

---

**Kattalin:** Ba ni ez nau ados.

---

**Irakaslea:** Zegaitzik Kattalin?

---

**Kattalin:** Baze esan gendun, medizina gaixotasune osatzeko produktuek eta gero guk hori hartu ahal izeteko beste geuze batzuk geitzen dakozela

---

**Irakaslea:** Eta horrek geitu diezan geuzek kalte ein ahal dozkuela gure dozu esan?

---

**Kattalin:** Bai, ze guk pastilla bat hartzen dogunien batzuten tripeko minek egin ahal dozkuz.

---

**Roman:** Baia beti ez dozkue kalte eitzen, batzuten bakarrik.

---

**Irakaslea:** Orduen ze uste dozue, beti eitzen dabela, batzuten edo inoz bez?

---

**Izar:** Ba batzuten bai eta beste batzuten ez, ze guri on eitzeko einde dauz, baia batzuten ba igual ahal dozkue kaltien bat ein.

---

**Irakaslea:** Beste nonok zeuzer geitxu nahi deu?

---

**GELAN:** isilik danak

---

**Irakaslea:** Oin sendabelarratara pasatuko gara. Sendabelarratan geixenok jarri dozue eraginkorra dala baia efektu sekundario asko dekozela. Zegaitzik hori?

---

**Roman:** Baze bedar berezixek dire osatu eitzeozkuenak. Gaixotasun bakoitzatzen bat dau. Eta txinatarrak osasuntsu egoteko hartzen dabez.

---

**Irakaslea:** Eta efektu sekundario asko dekiezela zer dala eta jarri dozue?

---

**Katalin:** Joe baze txinan pillo bat jente hiltzen da urtero sendabelarran erruz.

---

**Irakaslea:** Baia hori sendabelar pozoitsuek hartu ezkeru ezta?

---

**Katalin:** Bai, baia beti ez. Ze igual horrek belarrak sendatzeko behar dogun geuzie deko baia aregaz batera, beste geuze batzuk kalte ahal dozkuenak ein. Eta orduen, ba... horrek beste geuzek, pozoitsuek al dire izen.

**Irakaslea:** Orduen zer? Sendabelar batzukaz kontuz eduki behar dogu?

---

**Roman:** Bai, ze igual osatzeko balixo deu, baia osatu baino arinau igual al gara hil edozein hartzen badogun.

---

**Markel:** Ba ez, ze belar berezixek die sendatzeko eta ez dozkue kalterik eitzen.

---

**Kattalin:** Baia markel orduen zegaitzik hiltzen da jentie txinan? Ona izengo bazan, bakarrik osatuko bazen.

---

**Markel:** Bai hori be egixe da.

---

**Kattalin:** Osatuko dabe, kasu batzutan, beste batzutan pozoitsuek izengo die. Hori ya eztakigu.

---

---

**Irakaslea:** Beste inork gehitxu nahi deu ezer?...Bueno ba, homeopatiagaz jarritzuko dogu. Homeopatian geixenok jarri dozue ez dekola efektu sekundariorik, zer dala eta hori?

---

**Teku:** Joe baze ure baino ez dire, eta urek bakarrik ez dozku kalterik eitzen.

---

**Irakaslea:** Ure bai, baia hasiera baten eukiban medikamentuek dekien moduen osatzeozkun produktu apur bet ezta?

**Teku:** Bai, baia gero azkenien ya ezebez. Eta ganera osatzeko produkto horrek on baino eztozkun einbiko\_

---

**Irakaslea:** produktu honek kalte eitten dozkuela uste dabenik badau?

---

**GELAN:** isilunea

---

**Irakaslea:** Bueno eta eraginkortasunari buruz batzuk ipini dozuen batzuten baietz eta beste batzuk ezetz. Ia baietz uste dabenan bat?

---

**Maite:** Ba osatzeko produktue hasieran egon zanak, ba kantidade gutxiago egon arren ba batzuten igual osatuko dozku, gure gorputzek eztabelako bier laguntza askorik. Baia gutxitzen usteot.

---

**Roman:** Ba ez, Ze hori Cola Cao-n moduen da. Esne askogaz nasteu ezkerro ba gusto gutxi deko. Eta homeopatiak bardine, ur askogaz nasteu ezkerro eztozku osatuko, ze ezteko guk osatzeko bidogune.

---

**Kattalin:** Maisu ganera eztau frogarik esaten dabena osatu eitzen dozkuela, medikamentuekaz dauen moduen.

---

**Irakaslea:** Hori egixe da kattalin, baia batzuten osatzen dabe, nahiz da, ez jakin zegaitzik.

---

**Irakaslea:** Eta amaitzen joateko, elikagaik zer beharrezkoak doguz osatzeko?

**Aimar**: Osatzeko eztakit, baia bizitzeko bai. Jan barik hil eingo ginen.

---

**Irakaslea**: Baina edozer jatie ona da?

---

**Jon**: Ez, danetarik jan bida. Baia gozokixek eta ez dire onak

---

**Irakaslea**: Eta danetarik eta osasuntsu jatiek ze onura eduki leike?

---

**Markel**: Ba geixau biziko garela. Ze lengo egunien esan gendun eeee...eztait ze dieta janda jentiek beranduago hiltzen dala.

---

**Irakaslea**: Mediterranear dieta Markel?

---

**Markel**: Bai hori!

---

**Irakaslea**: Orduen osasuntsu jatiek guri kalte eitzen dozku?

---

**Gela osoa**: EZ!

---

**Irakaslea**: Eta gaixotasun aurrien zertan lagundu ahal dozku ondo jatiek?

---

**Kattalin:** Ba gorputze osasuntsu badekogun gitxiauten jartzen gara geixorik.

---

**Irakaslea:** Hori ondo dau, baina behin geixorik jarritze? Lagundu egingo dozkun ala ez?

---

**Kattalin:** Ba lagundu. Ze ondo gauzenien hobeto egoten laguntzen badeu ba geixorik gauzenien be lagundukoizu.

---

**Irakaslea:** Lagundu bai, baia ondo janda bakarrik osatuko ginen?

---

**Roman:** Ba segun ze gaixotasun dekogun.

---

**Irakaslea:** Katarro bat ondo janda bakarrik osatuko zan?

---

**Roman:** Ba ez, ze jarabie hartu biko gendun.

---

**Irakaslea:** Orduen ondo jatiek zer eitzen deu geixorik gauzenien?

---

**Maite:** Ba gure gorputze hobeto egoten lagundu arinau osatzeko edo.

---

**Irakaslea:** Danok zauzie ados maitegaz?

---

**Gela osoa:** Baii!

---

**Irakaslea:** Eta amaitzeko, esan dozue, medizinak eraginkorrak direla baia efektu sekundarioak dekietzala batzuetan, gero sendabelarrak be antzera, homeopatia berriz, ez dala eraginkorra baina efektu sekundariorik be eztekola eta dieta orekatuak gorputze sendotzen dabela baia kalterik ez. Orduen zelan lotuko zenduen efektu sekundario ta eraginkortasuna?

---

**Gela isilik**

---

**Irakaslea:** ia alde batetik dekogu, osatu baia kalte ahal dozkie ein. Eta bestetik eztagigu osatzen bazkuen baia badakigu eztozkule kalte eingo.

---

**Markel:** Ba orduen osatzeko kalte eitzeko arriskue eduki bidogule.

---

**Aizarotz:** Nik Markelen bardine pentsetaot, ze kalterik ein bez baia ez badozkun osatzen ezteu ezetako balixo.

---

**Irakaslea:** Orduen badago harremanik medikamentu edo terapia baten eraginkortasunen eta efektu sekundarioan artien?

---

**Kattalin:** Ba bai, ze ikusi dogu gehien osatzen dozkuenak kalte be eitzen dozkuela

---

**Irakaslea:** Emon ahal dozu adibidien bat Kattalin?

---

**Kattalin:** ba... medizinak gaixotasuna osatzen dozkie baia batzutan tripeko

minek eta eitzen dozkuz dekien beste partiegaitzik

---

**Irakaslea:** Beste nonok beste adibidien bat edo zeuzer esateko?

---

**Gela:** Isilik

---

**Irakaslea:** Eta homeopatian kasuen zelan izengo zan harreman hau nonork azaldu ahal deu?

---

**Izar:** Ba ez dau frogatute osatzen dozkuela.

---

**Irakaslea:** Eta efektu sekundarion aldetik?

---

**Izar:** Ez dauela

---

**Irakaslea:** Orduen esan ahalko gendun, terapia bakoitzak egiten dozkun onurak zenbat eta handiagoa izan, efektu sekundarioak eukitzeko posibilitatie ere handiagoa dala, edo kontrara?

---

**Talde osoak:** Bai

---

**Irakaslea:** Nonork azaldu ahal deu nik esan dodan azkenekoa? Edo danon artien azaldu?

---



**Teku:** Ba gaixorik gauzenien, sendatu ahal dozkun produktuek min ahal dozkula ein be bai.

---

**Aimar:** Teku edo be bai sendatzen ez dozkun geuze batek minik ez ezebe ein, homeopatian moduen.

---

**Irakaslea:** Orduen hori harremana zelan dala esan zenduen?

---

**Markel:** Ba...arinau osatuko dozkuenak osatuko ez dozkuenak baino min geixau ein ahalko dozkuela.

---

**Irakaslea:** Edo beste era batera esanda?

---

**Markel:** Ba...eztakit, igual osatzeko indar gutxi dekien geuzek min gitxiau ingozkuela.

---

**Irakaslea:** Min-egaz zeri eintzentzazu erreferentzia?

---

**Markel:** Ba igual pastilla bat hartu eta tripako minek etortieri.

---

**Irakaslea:** Orduen eranginkorrak direnak, hau da osatu edo beste produktu batzuk baino arinau osatzen daben produktuek, efektu sekundarioan bat eukitzeko posibilitate geixau dekola nahi dogu esan ezta?

---

**Talde osoak:** Baiii